# LABetik Hezkuntza Sailari eskatzen diogu aitzakiak alde batera utzi eta EAEko zerbitzuetako langileen kolektiboan hitzartutakoa betetzeko



Ikasturte hasieratik, Hezkuntza publikoko beste azpisektoreetan bezala, ugariak izan dira Hezkuntza Sailak eta Sindikatuok hitzartutakoaren gainean egin dituen ez betetzeak.

Zerbitzuetako langileekin hitzartutakoa bete! Baliabide pertsonaletan inbertitu!

Alde batetik, salatu nahi dugu, 2023ko akordiotik eratorritako lanpostuak sortzeko dekretua aprobetxatuz, lanpostuen zerrendako bi lanpostu amortizatu eta hirugarren bat erabili dutela berri bat sortzeko. Honek Lan Hitzarmenean jasotakoa urratzen duela argi dugu LABetik:

**“12.6 artikulua: urtero erregularizazio hauek aplikatuko dira. Nolanahi ere, hitzarmen hau indarrean jartzen den unean aurrekontuan dagoen langileen ordutegi-kredituari eustea bermatzen da.”**

Gogoratu nahi dugu 2023ko akordioaren afera judizializatu eta bi adiskidetze saioren ondoren ez garela adostasunera iritsi. Hori dela eta, aipatutako dekretua errekurritu dugu, bide judizialarekin aurrera eginez.

Bestetik, aurreko ikasturteko greba eta borroka zikloen ondoren ordezkaritza dugun sindikatu guztiak sinatutako Lan Hitzarmenean jasotzen dena betetzeko atzerapenetan dabil Saila. Sukaldeetan ratioak kalkulatzeko 7 orduko koefizientea eta garbiketako metro jaitsiera ez dira aplikatzen ari. Azken hauei dagokionez, gainera, urriaren 10ean zentroetara metroen azterketa egiteko urtarrilera arteko gabealdia eskatuz idatzia bidali zuten.

Lan Hitzarmena oraindik ez dela sinatu (aurreakordioa eta zuzenketak sinatu dira) aitzakitzat erabiltzen dute, nahiz eta irailaren 1etik indarrean egongo zela sinatua egon.

Hori gutxi balitz aditzera ematen dute haien borondatearengatik soilik betetzen ari direla hitzartutakoen artean betetzen ari dena. LABetik hainbat eta hainbat erreklamazio aurkeztu baditugu ere, Hezkuntza Sailak ezikusiarena egin edo aitzakiak edo bestelako inerpretazioak erabiltzen ditu adostutakoa sistematikoki hausteko. Gainera Lan hitzarmenaren berme klausula sinatzeko dago eta hitzarmenaren garapena izoztuta.

LABek jarrera hau oso larritzat jotzen du eta beti bezala langileak eta hezkuntza komunitatea da guzti honetan galtzaile.

Hori guztiagatik, irmoki exijitzen diogu Hezkuntza Sailari, adostutakoa bere osotasunean bete dezan. Hurrengo egunetan, langileen bilerak burutuko ditugu eta hauetan parte hartzera animatzen zaituztegu, indarrak batu eta hurrengo urratsak zeintzuk izango diren zehazteko. herrialdeetan burutuko diren asanbladetan parte hartzera gonbidatzen zituztegu.


z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus

# LAB exige al Departamento de Educación que deje las excusas y cumpla lo acordado con el personal de servicios de la CAV



Desde el inicio del curso, al igual que en otros subsectores de la educación pública, han sido numerosas las ocasiones en que el Departamento de Educación ha incumplido los acuerdos alcanzados con los sindicatos.

¡Cumplir lo pactado con el personal de servicios!
¡Invertir en recursos personales!

Por un lado, denunciamos que, aprovechando el decreto de creación de puestos derivado del acuerdo de 2023, se han amortizado dos puestos de la Relación de Puestos de Trabajo y se ha utilizado un tercero para crear uno nuevo. Desde LAB tenemos claro que esto vulnera lo recogido en el Convenio Laboral:

**Artículo 12.6. – Plantilla y funciones. Plantilla: "Anualmente se aplicarán estas regularizaciones. En cualquier caso, se garantiza el mantenimiento del crédito horario de personal existente en el momento en que entre en vigor este convenio."**

Recordamos que el conflicto derivado del acuerdo de 2023 ha sido judicializado y, tras dos sesiones de conciliación, no se ha alcanzado acuerdo. Por ello, hemos recurrido dicho decreto y seguimos adelante por la vía judicial.

Por otro lado, tras las huelgas y movilizaciones del curso pasado, el Departamento de Educación está incumpliendo los compromisos del Convenio Laboral firmado por todos los sindicatos con representación.

No se están aplicando ni el coeficiente de 7 horas para el cálculo de ratios en las cocinas ni la reducción de metros acordada para limpieza.

En este último caso, el pasado 10 de octubre el Departamento envió una comunicación a los centros solicitando una moratoria hasta enero para realizar el estudio de metros.

Además, el Departamento utiliza como excusa que el Convenio aún "no está firmado oficialmente" (aunque sí lo están el preacuerdo y las modificaciones), pese a que su aplicación debía ser efectiva desde el 1 de septiembre.

Por si fuera poco, afirman que las partes que están cumpliendo lo hacen "por su propia voluntad", y no porque sea una obligación derivada del acuerdo. Desde LAB hemos presentado numerosas reclamaciones, pero el Departamento de Educación hace caso omiso, recurre a excusas o interpretaciones arbitrarias y rompe sistemáticamente lo pactado. Además, la cláusula de garantía del convenio aún no se ha firmado y el desarrollo del mismo está paralizado.

LAB considera esta actitud muy grave, porque una vez más quienes pierden son los trabajadores y la comunidad educativa.

Por todo ello, exigimos con firmeza al Departamento de Educación que cumpla íntegramente lo acordado. En los próximos días celebraremos asambleas con el personal y os animamos a participar en ellas



www.irakaskuntza.lab.eus

z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus